

## INFERNUTIK ZERURA

Haritz Casabal Pikabea, 17 urte

*Pasai Antxo*

-1-

Aitaren izena Ramon,  
Amarena da Kontxita.  
Aitak astean zehar du  
Bere enpresarekin zita.  
Eta aste bukaeretan  
Tabernara itzulita.  
Tabernatik gero etxera  
Diru guztia utzita.  
Amak kaixo esaten du  
Aita hasi garrasika.  
Ni logelara sartzen naiz  
Ikusiak ikusita.  
Ama negarrez uzten du,  
Jipoituta, hain etsita.  
Zorte apur bat izanda  
Ez dit egingo bisita.

-2-

Astean zehar famili  
Oso normala gara gu.

Amak eta nik bizitza  
Egonkorra daramagu.  
Aste bukaeran berriz  
Zigor zitala daukagu.  
Horretaz hitz egitea  
Etxean beti da tabu.  
Etxea infernu ohi da,  
Berotzen da graduz gradu.  
Inor ez dago etxean  
Ziur edo eta salbu.  
Eta ama gutxiago,  
Hori behintzat dakit klaru.  
Zergatik jotzen du ama  
Hainbeste maitatzen badu?

-3-

Aitak baztertu zituen  
Aita izateko senak.  
Amaren ubeldu handi  
Nire zauri nabarmenak.  
Baina bizirik mantentzen gaitu  
Amaren itxaropenak.  
Aita hona datorrela  
Utzi egin nau kemenak.  
Ohean sartuta nago  
Negarrez ditut barrenak.  
Duela hamahiru urte  
Asko maite ninduenak.  
Eta hemendik gutxira  
Jipoitu behar nauenak.

Esna bete behar dizkit  
Amesgaizto gaiztoenak.

-4-

Etortzen denean aita  
Tabernatik hain mozkorra.  
Aita da horren bortitza,  
Eta horren egoskorra.  
Burua ez dauka soilik  
Zoritxarrean gogorra.  
Iraintzen bere ahoa  
Dauka oso emankorra:  
“Ez zenuen jaio behar  
eta zu azaldu horra.  
Agian izango zara  
Zure amaren altxorra.  
Nire bizitza izorratu,  
Kitatuko duzu zorra.  
Jaiotzeagatik jaso  
Behar bai duzu zigorra”.

-5-

Hitz egitean zerion  
Hari alkohol kiratsa.  
Jasan ezina zen oso  
Hurbiletik bere hatsa.  
Bere eskuak hartu du  
Nire aurpegiko norantza.  
Baina ama iritsi da  
Ni babestekotan antza.  
Aitak jiratuta eman

Dio zartako bat latza.  
Ama lurren botata  
Eta sortu zait zalantza.  
Hil egin ote da ama?  
Ezezkoan esperantza.  
Baina zoritxarrez dauka  
Hildakoek duten antza.

-6-

Polizia iritsi da,  
Ramon lurrera oihuka.  
Iritsi dira ondoko  
Etxeko batzuk deituta.  
Aita bi tipo handiren  
Eskuez dago hartuta.  
Aita daramate preso,  
Gainera esposatuta.  
Ama ordea lurrean  
Bi izarez tapatuta.  
Triste nago nahiz salbu  
Nagoenik ezin uka.  
Amarekin hasi eta  
Ama gabe bai dut buka.

-7-

Doluminak jaso ditut  
Guztion partetik mila.  
Hiletara etorri da  
Negarrez jendea pila.  
Azken agurra hain hotza,  
Iluna eta isila.

Amak utzi egin gaitu,  
Bizitza hobe baten bila.  
Nahiz berez urrun egon  
Sentituko dut hurbila.  
Ni hezten izan zelako  
Hain ona, horren abila.  
Zelako alaia, ona,  
Zintzoa eta umila.  
Infernutik zeruraino  
Ama iritsi dadila.

Doinua: Habanera  
Egilea: *Till Lindemann*